



2013KO URRIAREN 4KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko urriaren lauan, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, presazko ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Milagros Madrazo Rada.

Maialen Aldasoro Aranburu, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- HERRIRAREN INGURUKO MOZIOA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman eta deialdiaren presazko izaerari buruz galdetzen du.

Bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bozuekin deialdia berretsi egiten du.

Jarraian deialdi honen gaiari heltzen zaio, egun hauetan egon diren atxiloketaren inguruko mozioa.

Une honetan Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratu da.

Mozio hau Bildu eta EAJren artean adostua izan da eta honela dio:

"Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken urteetan. Aldaketa politiko sakona izan da ETA erakundeak erabaki eta adierazi izana 2011ko urriaren 20an bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera.

Herri hau, giza eskubide guztien onarpenean eta defentsan oinarrituz, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz eraiki behar dela, herri honen gehiengoak aspaldi egindako hautua da.

Aste honetan "Herrira" plataformako kideak atxilotu dituzte. "Dena ETA da" tesiari eutsiz egin dituzte atxiloketak, Euskal Herrian bake prozesua bultzatu eta finkatzeko bidean atzeraldia suposatzen dutelarik.



Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarrizko eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte, legeak, zuzenbide internazionalak eta giza eskubideen deklarazioak presoek aitortzen dizkien eskubideak defendatzea zilegia dela adieraziz.

Oinarrizko eskubideen etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak behar duen soluzio bilaketarako.

Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarrizko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartzeko eta partehartze aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitzari ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokitatik.

Horregatik ondorengo puntuak aurkezten ditugu udal batzak onartu ditzan:

- 1.- Espainiar Gobernuaren estrategia politiko-judiziala salatzen dute, salbuespenezko legediak oinarri hartuta, zenbait erakunde judizial, Auzitegi Nazionala kasu, erabiltzen dituelako "dena ETA da" tesia aktibatzeke, ETAk duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren, eta ETAREN ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilelako, aipatu erakunde horren erabakiaren irrebertsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeke ardura politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean.
- 2.- Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen errespetua eta "Herrira"ren baitan euskal presoek oinarrizko eskubideen alde lanean ari ziren atxilotutako pertsona guztien askatasuna eskatzen dute."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioaren aurka bozkatuko duela iruditzen zaielako justiziari bere lana egiten utzi behar zaiola tartean inor sartu gabe eta hau tartean sartzea dela. Gehitzen du, egoera hauek amaitzea nahiko luketela baina ez hortik aurrera. Esaten du baita ere ez dagoela ados gaur presazko izaerarekin osoko bilkurarako deialdia egitearekin.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du mozioa adostu dutela, Eusko Legebiltzarrean ere adostu dutelako, baina alkateari berriro gogoratu arazi nahi diola elkarrizketa beharra, Lazkaoko alderdi ezberdinen artean gauza guzti hauetaz.

Alkateak (Bildu) Estensoro zinegotziari erantzunez esaten dio eskertzen diola etorkizun klabean hitzegitea.

Mendia zinegotziak (Bildu) Serna zinegotziari erantzunez esaten dio atxiloketa hauek eraso bat izan direla eta erantzun azkarra behar zutela ulertu dutela eta bihar egingo den manifestaziorako deialdi bateratua egitearen aukeraren aurrean presazko izaeraz gaurko deialdi hau egin dela.

Guzti honen ondoren, mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 boto (Bildu, EAJ) eta aurkako botu batez (PSE-EE) beratu onartu egiten du.





II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak bederatzi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop followed by a horizontal line and a smaller loop.

